

GURE ERAGINA INGURUMENEAN II

1.-Irakurri arretaz garapen iraunkorra lortzeko egin daitezkeen gauzak. Gero, esan zeintzuk dauden enpresen esku, estatuaren esku edo herritarren esku.

Garraio publikoaren erabilera sustatu.

Ekoizpen-prozesuetan energiaren eta uraren gastua minimizatu.

Material biodegradagarriak erabili ontzietarako.

Ura eta argia ez xahutu.

Ahal bada, garraio publikoa erabili.

Hirietako berdeguneak ugariagotu.

2.-Lotu hitz bakoitza bere definizioarekin:

- Babes-maila handieneko izendapena da.
- Gutxi eraldatutako paisaiak dira.
- Autonomia-erkidego bateko eremu garrantzitsuak babesten ditu.
- Europar Batasunak sortutako baliabide bat da.
- Nazio Batuen Hezkuntza, Zientzia eta Kulturako Erakundeak (UNESCO) sortutako baliabide bat da.
- Natura 2000 sarea.
- Parke nazionala.
- Eskualde-parkea.
- Munduko ondarea.
- Parke naturala.